

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LANTARONGO UDALA

#### 2020ko JEZaren ordainagiriak kobratzeko moduan jartzea

Jendeari jakinarazten zaio 2020ko urriaren 13tik aurrera kobratzeko moduan jarriko direla, borondatezko epean, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2020ko ordainagiriak.

#### 1. ORDAINTZEKO EPEA.

A) Borondatezko aldia: 2020ko urriaren 13tik 2020ko abenduaren 18ra, biak barne.

B) Betejarazte aldia, ehuneko 20ra arteko errekararekin: 2020ko abenduaren 21etik aurrera betejarazte aldiko errekararekin, premiamendu murriztukoak eta arruntekoak ordaindu beharko dira, Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

#### 2. ORDAINTZEKO TOKIA ETA MODUA.

A) Banketxeetan helbideratutako ordainagiriak: Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenez ez dute beste izapiderik egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa. Dena den, zergadunek jakin bezate ordainketa helbideratzeen altak eta aldaketak Udalean izapidetu behar direla. Ordainagiriak 2020ko abenduaren 11n kobratuko dira.

B) Helbideratu gabeko ordainagiriak: zergadunek udal bulegoetan ordaindu beharko dituzte, borondatezko epean, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Komunioi, 2020ko irailaren 30a

*Alkatea*

*JAVIER URIARTE JAIRO*